



Mozio politiko proiektua –EAD-PDEren Biltzarra Erroman

2022ko urriaren 14an, Erroman egin zen Kongresuan, EAD-PDEk ondorengo mozio politikoa onartu zuen:

1. Gerra Ukrainan

- i. Europako Alderdi Demokratikak (EAD-PDE) sendotasun osoz berresten du erabat gaitzesten duela Errusiako tropek Ukraina inbaditu izana, nazioarteko legeria, Nazio Batuen Erakundearen Karta eta Europako Segurtasun eta Lankidetzari buruzko Konferentziaren sorrerako printzipioak (CSCE) erabat urratzen baititu.
- ii. EAD-PDEk salatzen ditu Errusiar inbaditzaileek Ukrainako biztanleriaren kontra darabiltzaten estrategia eta jokaera: eraikin zibilak eta biztanleriaren etxebizitzak nahita suntsitzeko estrategia delarik, armarik gabeko biztanleen exekuzio sumarioekin, bahiketa, tortura, tratu umiliagarri eta bidegabeekin eta haurrak bahitzeraino iritsita.
- iii. EAD-PDEk uste du ekialdeko muga ondoan dauden lau erregiotan Errusiarekiko atxikimenduaz galdetzeko egin den ustezko erreferendumaren antzezpenak derrigorrezko eta presazko egin du zigor berri eta gogorragoak erabakitzea eta ezartzea (finantzarioak, ekonomikoak, industrialak, mugitzeko askatasuna mugatzea, aktiboak izoztea eta konfiskatzea); ildo beretik EAD-PDEk onesten du Europako Batasunak erabaki duen zortzigarren zigor multzoa.
- iv. EAD-PDEk Europako herrialdeetatik Ukrainako armadari laguntza militarra azkar eta eskala handian ematearen alde dago. Horrek Ukrainako indarrei lagundu egiten die, une honetan erasoan baitaude Errusiak legez kanpo eta iruzurrez atxiki dituen lur-zerrendak berriro hartzeko. Denbora funtsezkoa da: Vladimir Putinek deitu dituen 300.000 gizonen indartuko dituzte tropa errusiarrak, abian den mobilizazio partziala aurrera eramateko.
- v. EAD-PDEk nabarmentzen du Vladimir Putinen Errusiaren maniobrei aurka egiteko beharra, maniobra horiek Europako zenbait estatu ezegonkortzera eta EBko estatu kideak banatzera bideratuta baitaude, Batasunaren



erakarpen-indarra sakabanatzeko eta suntsitzeko. Horregatik, Emmanuel Macron presidenteak bultzatutako Europako Erkidego politiko baten sorrera babesten du EAD-PDEk, estatu kideen, atxikitze-negoiazioetan parte hartzen duten estatuen eta Europako beste estatuen arteko loturak estutzeko, etorkizunera begira hautagaitza aurkeztu nahi izango duten edo ez kontuan hartu gabe. Horrela, Erkidego bat sortu ahal izango da, eta, bertan, Europako demokraziek lankidetzan jardun ahal izango dute interes komuneko eremuetan, eta kontinenteko egonkortasunaren eta segurtasunaren arkitektura berrantolatu ahal izango dute.

Europako Alderdi Demokratik harrotasun osoz esan dezake pozik dagoela iragan urriaren 6an Pragan egin zen lehen bilera arrakastatsua izan delako.

- vi. Europako Alderdi Demokratik ulertzen du Batasunaren agendan jaso beharko litzatekeen puntuetako bat dela Europako demokrazien artean adostasuna lantzea bai eta nazioarte mailako babesa bilatzea ere, Ukrainan egin diren gerra krimenen erantzuleak jazartzera begira.

2. Testuinguru politiko kezkarriean Europa burujabearen alde daramagun borroka

Egoera politikoa Italian

- i. Europako Alderdi Demokratik begi onez hartzen ditu Italia Viva taldeak 2022ko udazkenean lortu dituen emaitzak eta Azione alderdiarekin batera “Renew Italy” mugimendua sortu izana. Gure aliatu italiarren ondoan jarraitzen dugu, hemendik aurrera herrialdea gobernatuko duen muturreko eskuinaren benetako alternatiba eraikitzea babesteko. 2024ko Europako hauteskundeak gure adostasuna eta eragina handitzeko aukera izango dira, indar nagusi eta erreformatzaile gisa, Italian eta Europan. Horregatik da garrantzitsua europaren aldeko mugimendu berri bat izatea, “Renew Italy” izeneko bezalakoa, Europa indartsuago, subiranoago eta demokratikoago bat lortzeko dugun ikuskera defendatzeko.
- ii. Izan ere, alde batetik, Europako Alderdi Popularra gero eta gehiago da babesa ematen duen bazkide bat, muturreko indarrek boterea irabazteko erabiltzen dutena, Erroman eta Stockholmen ikus dezakegun bezala. Ezkerra ahultzen ari da eta gero eta aliantza gehiago bilatzen ditu indar



populista eta estremistekin. EAD-PDEk uste du, eta irizpide berberari eutsi dio urte askoan, populisten eta euroeszeptikoen aurka elkartuz, Europaren aldeko indar zentralistak gero eta gehiago bihurtuko direla Europaren indarberritzearen eragile. Horixe da 2024ko Europako hauteskundeei begira daukagun erronka handia.


Egoera politikoa Europan

- i. Muturreko alderdien eta populisten erakargarritasuna ez da soilik Italian gertatzen den zerbait. Europa osoan zehar ematen ari den mehatxua da Giorgia Meloni Gobernura iristeaz gain. Suedian, herrialde horretako eskuin muturrekoa boterea lortzetik hurbil egon daiteke. Alemanian ere Alternative für Deutschland alderdi populistak emaitza onak lortu ditu zenbait hauteskundeetan. Frantzian, eskuineko muturrekoak bere burua eta izena aldatzen jarraitzen du, "Frexit" erretorika isilarazten duen bitartean, Britainia Handiko Brexit-a kolokan dagoela ikusita. Hala ere, beren muturreko agendari eusten diote: Frantzia bere barrura begira egon dadin presioa eginez eta ezagutzen dugun EBren amaiera etor dadila. Ikusi dugu ezker muturrekoak lehen baino hobeto moldatzen ari direla, nahiz eta kanpoko itxura desberdina izan, Europaren kontrako agenda ere baitu.
- ii. EAD-PDEk gogorarazi nahi du alderdi politikoek gehiengo absolutua lortzearen arriskuak oso ezagunak direla: uste dute nahi dutena egin dezaketela, boterearen oreka ahaztuta, independentzia judiziala higituta, oinarrizko eskubideetan esku hartuz, hala nola abortatzeko eskubidean, eta Europako balio komunak suntsituz: berdintasuna, justizia, zuzenbide-estatua, elkarrekiko errespetua eta besteei irizpide onak.
- iii. EAD-PDErentzat, Giorgia Melonik zuzendutako Italia bat izatea, hau da, barrura begira egongo dena, berri txarra da Europarentzat eta bere herritarrentzat. Suedia estremistago batek kalte egiten dio Europari. Ahuldutako Alemaniak ahuldu egin du Europa. Frantzian, ordea, Emmanuel Macron berriz ere presidente hautatu izana garaipena izan zen Europarentzat. Gure ekonomiak, gure eguneroko bizitza, oparotasuna, demokraziak eta europar gisa dugun etorkizuna elkarri lotuta daude. Orain, inoiz baino gehiago, Europako herritarrek ikus dezakete beren auzokideak zertan ari diren eta zer bozkatzeko ari diren.



Europaren burujabetasuna

- i. Azken gertakariak, hauen artean Covid 19aren pandemiak, Ukrainako gerrak eta energiaren krisiak, behin eta berriro utzi du agerian Batasunaren mugak zein diren. Europako hainbat herrialde gaizki hornituta daude, ez dute behar besteko baliabiderik horiei erronka guztiei aurre egiteko, fidagarriak ez diren, edo areago, etsai diren kanpo-hornitzaileekiko mendekotasun handiegia dagoelako. EAD-PDEren aburuz, Batasunak eta Estatu Kideek erantzukizun historikoa dute beren funtzionamendurako eta etorkizuneko garapenerako funtsezko gertatzen diren sektoreetarako hornikuntza progresiboki bermatzeko estrategiak diseinatzeko eta abian jartzeko. Sektore horiek lirateke segurtasuna, energia, osasuna, teknologia aurreratuak, etorkizunerako azpiegiturak, beste hainbaten artean.
- ii. Egungo testuinguruan, lehentasun nagusia da Europako Batasunaren baitan eta Estatu Kideetan energiaren hornikuntza seguru bihurtzeko plan bat izatea. Plan horrek ondorengoak bermatu beharko lituzke, gutxienez:
 - a. Helburu lotesleak ezartzea (Estatu Kide bakoitzaren arabera egokitu ahal lirateke), fasetan betetzera begira, energiaren mix orokorraren barruan energia berriztagarrien portzentajea handitzeko (azken helburua: %80-%100)
 - b. Batasunean zehar erreserbak eta energia-azpiegituren kudeaketan elkarlana indartzea. Honek berarekin dakar hurrengo hiru urteetarako Batasunaren inbertsio-plan bateratua egitea, Europako argindar sarea osatzea eta estatuetakoko agintariak elkartzea eragiketen kudeaketak harmonizatzeko.
 - c. Energiaren eraginkortasuna hobetzeko soluzio berritzaileak bilatzea sustatzea;
 - d. Berehala eman beharreko urrats gisa, Estatu Kide guztiei eskatzea negua baino lehen beren gas erretserbak betetzea.



EUROPEAN DEMOCRATS' CONGRESS

Rome, IT - 14 October

3. Fase berri bat Europako Alderdi Demokratarentzat

- i. Bere sorreratik, 2004an, Europako Alderdi Demokratak “erdiko bide berri baten beharra” aldarrikatu zuen Europako politikagintzarako. Une hartatik aurrera PDEk jarraitzen du, oraindik ere, alderdi tradizionalen eta muturreko alderdien arteko dikotomia faltsua arbuiatzen. Hemezortzi urte geroago, Europako Demokratak dira, gure lagun liberalekin batera, “Renew Europe” aliantzaren zutabe nagusia.
- ii. Gure Taldea Europako Parlamentuan ezinbesteko bihurtu da, eta 2019tik aurrera aurrerapauso handiak eman ditu, hala nola Zuzenbide Estatuaren baldintzazkotasun berria (Europak ematen dituen funtsik ez dago Europaren baloreak errespetatuko ez dituztenentzat), Europarako Itun Berdea, Berreskuratzeko Plana, nazioz gaindiko zerrendak eta Europaren Etorkizunari buruzko Konferentzia, kontinente mailan herritarren parte hartze zuzenarekin egin den lehen saiakera.
- iii. Europako Alderdi Demokratak jarraituko du lan egiten benetako nazioz gaindiko Europar demokrazia burujabe indartsua izateko. Pertsona eta ideia berriak erakarriko ditugu politikagintzara, gizarte zibiletik hasita ekintzaileetara, ikasleengandik hasita nekazari eta bestelako profesionaletara. Gure familia politiko hau hazi araziko dugu etorkizunaren aldeko proiektu hau Erromatik Rotterdamera eramateko, Brnotik Bilbora, Ljubljana-tik Larnacara, Venezia-tik Vilniusera, Madeira-tik Munichera, eta Estrasburgotik Santa Cruz Tenerifekora.

Eta jarraituko dugu “Aniztasunean Batuta” goiburuaren bidetik aurrera egiten, identitate ezberdinak erabat errespetatuz eta gure lurraldean gero eta sendoago sustraituta. Hain zuzen ere, gure mugimendua, kide ditugun alderdiak bezala, tokian tokiko eta erregioan erregioko esparruetan ditu bere sustraiak, gaur bertan Erroman Alkate Demokraten artean egin den gailurrean erakutsi bezala.

- iv. Gaur, EAD-PDE fase berri batean sartzen ari da. Hemendik aurrera eta 2024ko Europako hauteskundeetara, gure helburua da muturreko alderdien alternatiba erreal bakarra izatea. Herrialde bakoitzean eta gauden leku bakoitzean, Europa drainatu duen populismoa piezaka desegingo dugu.
- v. PDEk bataila horiek eramango ditu aurrera, Batasunaren baloreak defendatzeko borrokatuko da eta Europako erreformen aitzindaria izango da.